

Herri arrantzaleko baserri azoka

Jaietako bigarren domekan izango da azoka hau, eta bihar, Euskal Artisautzarena

Bat baino gehiago mira eginda utziko ditu Eupeme Deunaren egunean, hilaren 16an, Lameran izango den baserri giroak. Hala ere, Lurgintza saileko Jabier Barrenetxeak argitu digunez, «Bermeon baserritar asko daude eta, hala ere, denek identifikatzen dute herria portu eta arrainarekin».


Euskal Herri osoko baserritarak etorriko dira beren produktuak erakutsi eta saltzera. Horrez gain, txakolin zuria eta gorria, Idiazabal gazta eta ortuariak dituzten baserritarrek txapelketa batean parte hartuko dute. «Eguerdiko 13:30ean epaileek irabazleen izena ematean, beren erakusmahaiak jendek gainezka jarri eta guztia saltzen dute». Bere aburuz, jendea epaileen erabakiaren zain egoten da gazta edo txakolina erosteko.

Postua jartzeko baldintzak

Txapelketan parte hartzen duten produktuez gain, beste asko gehiago ere badaude; ogia eta euskal pastela, zainzuriak, loreak, txerriak edo pateak, beste batzuen artean.

Baina edonork ezin dezake saltokia jarri. «Dokumentazioa eskatzen diegu ziurtatu ahal zateko produktua ez dela baserritar bati erositakoa, gero azokan garestiago saltzeko», adierazi digu Lurgintza saileko buruak. Hala ere, dokumentazioa duen jende askok deitzen du, eta horien artean aukera egin behar izaten dute. «Beren produktu onengatik ezagutzen ditugun baserritarrek lehentasuna izaten dute, eta berrikuntzak aurkeztzen dituen jendearekin ezin diogu ezetz eman, baina lan hau, aukera egitea, zaten da guretzat zailena».

Ehun eta berrogeita hamar saltoki izaten dira, baina saltzaileak 92 bat izaten dira, zen-



Baserriko produktuak ez dira faltako igandeko azokan.



Artisauek azokan bertan erakutsi beharko dute euren langintza.

baitek erakusmahai bat baino gehiago behar izaten baitu. Horietariko baserritar askok gutxi saltzen dutela esaten dute. Hala ere, Jabierrek adierazi digunez, «bezero finkoak dituzten baserritarrek daude, eta horiek normalean asko saltzen dute». Beraz, bezeroak erakartzea da lehen eginbeharra. «Baina, hegaluzearen kanpaina nola joan den ere oso garrantzitsua da», baieztatu digu Jabierrek, «izan ere, baserriko produktuak oso onak izaten direnez, prezioa ere horren araberakoa izaten dute».

Artisautza bizi-bizian

Baserritarren Eguna baino lehen ere badago beste azoka batez gozatzeko aukera; biharko, Euskal Artisautzaren III. Azoka antolatu du Biarteak Elkarteak Jose Ignacio Fariñasek. Bertan, batez ere, Bizkaiko, Gipuzkoako, Arabako eta Nafarroako artisauek izango dira beren produktuak saltzen eta nola egiten dituzten erakusten. Izan ere, Jose Ignaciok adierazi digunez, horixe da artisauek kontratatzeke nahitaez eskatzen duen baldintza: «ikusleei euren produktuak nola egiten dituzten erakustea, horrek bizitasuna ematen baitio azokari».

Goizeko 11:00etatik arratsaldeko 15:00ak bitartean egongo da azoka, Lameran, eta 30 bat artisauek izango dira bertan. Jose Ignaciok azaldu digunez, azoka antolatzen daramatzan hiru urteetan sailatu da zenbait berrikuntza sartzen, eta aurten ere badaude batzuk. Berrikuntza horietariko bat Zaragozatik etorriko da, harria lantzen erakustera. Baina gehiago ere egongo dira, hala nola, sikatutako loreekin egindako koadroak, bitxigintza, eztainguren koskadura, Euskal Herriarekin zerikusia duten buztinezko figuratxoak, larruz egindako objektuak, abarkak.

Bermeoko

eusko
alkartasuna

**Jai baketsu
eta zoriontsuak
opa dizkizuegu**

**OKI
LE**
ALTZARIAK
Jai zoriontsuak
igaro

Landabaso poligonoa, 6
Tel. eta Faxe. 94 688 26 74
BERMEO (Bizkaia)

